

ASISA VIDA TRANQUILIDAD

ASISA VIDA TRANQUILIDAD
ASEGURURAKO
AURRETIAZKO INFORMAZIO
OHARRA

asisa +
vida

1. Enpresa kontratatzailearen sozietate izena eta forma juridikoa. Egoitza soziala.

ASISA VIDA SEGUROS, S.A.U.
c/ Juan Ignacio Luca de Tena, 12. 28027, Madril - ESPAINIA

2. Produktuaren izena.

Asisa Vida Tranquilidad.

3. Aseguru mota.

Aldi baterako urteko aseguru berriztagarrien modalitateko bizi aseguru.

4. Berme aseguruak.

Produktu honek jarraian adierazitako bermeak eskaintzen ditu, Baldintza Orokorretan adierazitako irismenarekin. Berme hauen zenbatekoa kasu bakoitzerako kontratatuko da eta Baldintza Berezielan adieraziko da.

4.1 Derrigorrezko bermea.

- Kapitala **heriotza kasuan arrazoia edozein izanda ere:** kapital jakin bat bermatuko da aseguruaren heriotza kasuan.

4.2 Hautazko bermeak.

- Kapitala **istripu baten ondoriozko heriotza kasuan:** derrigorrezko bermearen parekoa den kapital bat bermatuko da aseguratu istripu baten ondorioz hiltzen bada, betiere istripuaren jatorria aseguratuaren intentzionalitatearekin zerikusirik ez duen arrazoi bortitz, bat-bateko eta kanpokoa bada. Miokardioko infartu akutua ez da istripuztat jotzen.
- Kapitala **zirkulazio istripu baten ondoriozko heriotza kasuan:** derrigorrezko bermearen parekoa den kapital baten ordainketa istripua zirkulazio istripua bada.
- Kapitala **ezintasun iraunkor eta absolutu kasuan arrazoia edozein izanda ere:** derrigorrezko bermearen parekoa den kapital bat bermatuko da aseguratu, bere borondatearekiko independentea den istripu edo gaixotasun baten ondorioz, egoera fisiko atzeraezin batera iristen bada eta egoera horrek edonolako lan harremana edo jarduera profesionala garatzeko erabat ezgaitzen badu.
- Kapitala **istripu baten ondoriozko ezintasun iraunkor eta absolutu kasuan:** derrigorrezko bermearen parekoa den kapital bat bermatuko da aseguratu, bere intentzionalitatearekin zerikusirik ez duen kanpoko istripu bortitz eta bat-bateko baten ondorioz, egoera fisiko atzeraezin batera iristen bada eta egoera horrek edonolako lan harremana edo jarduera profesionala garatzeko erabat ezgaitzen badu. Miokardioko infartu akutua ez da istripuztat jotzen.
- Kapitala **zirkulazio istripu baten ondoriozko ezintasun iraunkor eta absolutu kasuan:** derrigorrezko bermearen parekoa den kapital baten ordainketa istripua zirkulazio istripua bada.

4.3 Kanpo geldituko diren arriskuak.

Estalduatik kanpo geldituko dira eta, ondorioz, ez dute inolako kalte ordainik sortuko, ezbehar hauek:

- Norbere buruaz beste egitea polizaren indarraldiaren lehen urtean zehar.
- Jarraian adierazitako kirolak egin bitartean gertatutakoak: boxeo, borroka, arte martzialak, espeleologia, urpekaritza, alpinismoa, eskalada, ala delta, hegazkin ultra-arinetan hegan egitea, parakaidismoa, parapentea edo antzeko arrisku maila duen beste edozein.
- Poliza indarrean sartu aurretiko istripu edo gaixotasunen ondorioz gertatutakoak.
- Aseguruaren delitu egintzen ondorioz gertatutakoak.
- Aseguruen Konpentsazio Partzuegoak estaltzen dituen ezohiko arriskuen ondorioz gertatutako ezbeharrak (ikus ezohiko arriskuen estaldurari buruzko klausulak).

Hautazko bermeetan kanpo geldituko dira ere:

- Aseguratuaren borondatez eragindako ezbeharren ondoriozko ezintasuna edo istripua.
- Jarraian adierazitako egoeretan aseguratuari eragindako edo gertatutako ezintasun edo istripuak: mozkortasuna edo mediku batek errezetatu ez dituen estupefazianteen kontsumoa, somnambulismoa edo eroaldia, liskarra edo desafioa, betiere, azken kasu horretan, aseguratuak defentsa legitimoan edo pertsona edo ondasunak salbatzeko ahaleginean jardun ez badu.
- Itsutasunaren, gortasunaren edo deklaratu ez den bestelako akats fisiko baten ondorioa den ezintasun edo istripua.
- Aseguratuak, profesional gisa, abiadura edo erresistentzia lehiaketetan edo orotariko lasterketetan parte hartzetik edo horien entrenamendu edo prestatuketan parte hartzetik eratorritako ezintasun edo istripua.
- Tentsio handiko korranteetan elektrizitate manipulazioak egitearen ondoriozko ezintasun edo istripuak.

5. Primen baldintzak, epeak eta epemugak.

5.1 Alderdi orokorrak.

Produktu honen tarifa aseguratuaren adin aktuarialaren arabera ezarri da. Irizpide hori mantendu egingo da ere hurrengo berritzeetan.

Kontratatu ahal izateko gutxieneko adina 18 urte dira eta, gehienezkoa, 64 urte. Iraute adinaren muga 75 urtekoa da derrigorrezko bermearen kasuan eta 67 urtekoa hautazko bermeen kasuan.

Polizak eta primak urtebetekoak dira, baina Erakundeak horien ordainketa erraztuko du sei hilean behin, hiru hilean behin eta hilean behin ordaindu beharreko ordainagirien bitartez, inolako errekar gurik gabe.

5.2 Kontratututako kapitalaren mugak.

Aseguru honetan jarraian adierazitako mugak ezarri dira kontratatutako kapitalerako:

- Derrigorrezko bermea, edozein arrazoiren ondoriozko heriotza: kapitala 18.000 € eta 510.000 € artekoa izan beharko da.
- Hautazko bermea: derrigorrezko bermerako kontratatu den kapital bera.
- Istripu baten ondoriozko heriotza eta/edo ezintasun iraunkor absolutuaren hautazko bermea kontratatzen bada, berme nagusian kontratatu ahalko den gehienezko kapitala 250.000 €-koa izango da.
- Zirkulazio istripu baten ondoriozko heriotza eta/edo ezintasun iraunkor absolutuaren hautazko bermea kontratatzen bada, berme nagusian kontratatu ahalko den gehienezko kapitala 180.000 €-koa izango da.

5.3 Primaren urteko bilakaera.

Produktu honen tarifa adinaren arabera ezarri da:

Primaren luzapenaldi bakoitzean, prima bat etorriko da Erakundeak momentu horretan ezarritakoarekin, aseguratua berritze datan duen adinaren arabera.

Hauk dira urteko prima garbiak aseguratutako 1.000 € kapital bakoitzeko:

Adina	Heriotza	Istripuaren ondoriozko heriotza	Zirkulazio istripuaren ondoriozko heriotza	Ezin. iraun. abs.	Istripuaren ondoriozko ezin. iraun. abs.	Zirkulazio istripuaren ondoriozko ezin. iraun. abs.
18	0,44225	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
19	0,45387	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
20	0,46371	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
21	0,47721	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
22	0,48899	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
23	0,50044	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
24	0,50929	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
25	0,50793	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
26	0,49499	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
27	0,48098	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
28	0,46354	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
29	0,44816	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
30	0,43415	0,45938	0,52500	0,24806	0,45938	0,52500
31	0,43353	0,45938	0,52500	0,24806	0,45938	0,52500
32	0,44145	0,45938	0,52500	0,24806	0,45938	0,52500
33	0,46433	0,45938	0,52500	0,24806	0,45938	0,52500
34	0,50267	0,45938	0,52500	0,24806	0,45938	0,52500
35	0,55894	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
36	0,63170	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
37	0,71038	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
38	0,79231	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
39	0,89100	0,45938	0,52500	0,27563	0,45938	0,52500
40	0,99479	0,45938	0,52500	0,33075	0,45938	0,52500
41	1,11551	0,45938	0,52500	0,37209	0,45938	0,52500
42	1,24394	0,45938	0,52500	0,41344	0,45938	0,52500
43	1,38556	0,45938	0,52500	0,48234	0,45938	0,52500
44	1,53030	0,45938	0,52500	0,55125	0,45938	0,52500
45	1,67990	0,45938	0,52500	0,59259	0,45938	0,52500
46	1,84508	0,45938	0,52500	0,66150	0,45938	0,52500
47	2,03002	0,45938	0,52500	0,71663	0,45938	0,52500
48	2,24399	0,45938	0,52500	0,75797	0,45938	0,52500
49	2,48016	0,45938	0,52500	0,82688	0,45938	0,52500
50	2,74690	0,45938	0,52500	0,92334	0,45938	0,52500

ASISA VIDA TRANQUILIDAD ASEGURURAKO AURRETIAZKO INFORMAZIO OHARRA

Adina	Heriotza	Istripuaren ondoriozko heriotza	Zirkulazio istripuaren ondoriozko heriotza	Ezin. iraun. abs.	Istripuaren ondoriozko ezin. iraun. abs.	Zirkulazio istripuaren ondoriozko ezin. iraun. abs.
51	3,05203	0,45938	0,52500	0,96469	0,45938	0,52500
52	3,38987	0,45938	0,52500	1,03359	0,45938	0,52500
53	3,69043	0,45938	0,52500	1,10250	0,45938	0,52500
54	4,01955	0,45938	0,52500	1,24031	0,45938	0,52500
55	4,35652	0,45938	0,52500	1,37813	0,45938	0,52500
56	4,72497	0,45938	0,52500	1,68269	0,45938	0,52500
57	5,09225	0,45938	0,52500	1,83428	0,45938	0,52500
58	5,43926	0,45938	0,52500	2,00104	0,45938	0,52500
59	5,78924	0,45938	0,52500	2,16779	0,45938	0,52500
60	6,11018	0,45938	0,52500	2,38002	0,45938	0,52500
61	6,40784	0,45938	0,52500	2,59225	0,45938	0,52500
62	6,70081	0,45938	0,52500	2,83480	0,45938	0,52500
63	7,08369	0,45938	0,52500	3,09251	0,45938	0,52500
64	7,44239	0,45938	0,52500	3,38054	0,45938	0,52500
65	7,91164	0,45938	0,52500	3,71680	0,45938	0,52500
66	8,72358	0,45938	0,52500	4,08890	0,45938	0,52500
67	9,72781	0,45938	0,52500	4,49682	0,45938	0,52500
68	10,90605					
69	12,22468					
70	13,86675					
71	15,72108					
72	17,74720					
73	20,86126					
74	24,89190					
75	29,78006					

* Marroiez adierazita ageri dira produktua kontratatu ezin duten adinak.

Ez da aldaketarik aurreikusi aurreko tarifen, hala ere, aldaketarik egongo balitz, aseguru hartzaileari jakinaraziko zaizkio indarrean dagoen legediaren arabera.

5.4 Berritzeak.

Asegurua hitzartzen da Polizaren Baldintza Berezietan aurreikusitako eperako eta, epe hori amaituta, Aseguru Kontratuen Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, luzatu egingo da gehienez ere urtebetekoak izango diren epeetan zehar. Hala ere, alderdietako edozeinek aurkaratu ahalko du luzapena beste alderdiari bidalitako idatzizko jakinarazpen bidez eta jakinarazpen hori bidali beharko da abian den aseguru aldia amaitu baino hilabete bat lehenago gutxienez, luzapena aurkaratzen duena aseguru hartzailea bada, eta bi hilabete lehenago gutxienez, luzapena aurkaratzen duena aseguratzailerak bada. Aseguratzailerak aseguru hartzaileari jakinarazi beharko dio, abian den indarraldia amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez, aseguru kontratuan egingo den edozein aldaketa.

Era berean, aseguru kontratua azkendu egingo da aseguratuaren heriotza edo ezintasun iraunkor absolutu kasuan.

5.5 Aldebakarreko suntsiarazpena.

Suntsiarazpen arrazoi posibleak:

- Aseguruaren Hartzailleak kontratua suntsiarazi ahaliko du hogeita hamar egunetan zehar, ASISA VIDA SEGUROS-ek poliza edo aldi baterako estaldura dokumentua entregatzen dion datatik hasita, poliza deuseztatzea idatziz eskatuta eta, ondorioz, momentu horretara arte ordaindutako primak itzultzea eskatuta. ASISA VIDA SEGUROS-ek zenbateko hori kendu ahaliko du kontratua indarrean egon den aldiari dagokion primatik.
- Aseguru Hartzaillearen erruz prima ordaindu ez balitz, ASISA VIDA SEGUROS-ek kontratua suntsiarazi ahaliko du edo zordundutako prima ordaintzea eskatu ahaliko du betearazpen bidetik, poliza oinarri hartuta. Aurkakoa adostu ezean, prima ordaindu ez bada ezbeharra gertatu aurretik, ASISA VIDA SEGUROS bere obligaziotik salbuetsita geldituko da.
- Ondorengo primetako bat ordainduko ez balitz, estaldura bertan behera geldituko da epemugatik hilabete bat igaro denean. ASISA VIDA SEGUROS-ek ordainketa eskatzen ez badu primaren epemugaren ondorengo sei hilabeteetan zehar, kontratua suntsiarazi dela ulertuko da.

5.6 Bermatutako balioak.

Aseguru modalitate honek ez du erreskate, murrizketa eta aurrerakin baliorik.

6. Ordainarazteko zergak.

Une honetan, aseguru huen gaineko errekareruak honakoak dira:

- Aseguru Konpentsazio Partzuergoaren aldeko errekareru, erakunde aseguratzailen likidazio eginkizunak finantzatzeko helburua duena (CLEA zaharra). Errekargu hau primaren % 1,5koa da, edozein arrazoiren ondoriozko heriotza kasurako berme nagusiari dagokion zatia kanpo utzita.
- Aseguru Konpentsazio Partzuergoarentzako errekareru, ezohiko arriskuen ondoriozko pertsonen gaineko kalteak estaltzeko helburua duena. Errekargu hau aseguraturako kapitalaren % 0,003koa da.
- Aseguru Primeren Zerga, primaren gaineko % 8koa, edozein arrazoiren ondoriozko heriotza kasurako berme nagusiari dagokion zatia kanpo utzita.

Etorkizunean gerta litezkeen zergen aldaketak kasu bakoitzean araudian xedatutako moduan aplikatuko dira.

7. Erreklamaziorako instantziak.

Erakundearen aurrean erreklamazioa aurkezteko bi ondoz ondoko instantzia daude:

1. ASISA VIDA SEGUROS-en Zuzendaritza Nagusia. Legitimatuta dauden pertsonak erreklamazioa aurkeztu ahaliko dute barne bidetik ASISA VIDA-ren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean. Horretarako, dagozkien erreklamazio orriak dituzte eskura Erakundearen bulegoetan.
2. ASISA Taldeko Bezeroen Arreta Zerbitzua. ASISA VIDA-ren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenarekin ados ez egotekotan, legitimatuta dauden pertsonak erreklamazioa aurkeztu ahaliko dute ASISA Taldeko Bezeroen Arreta Zerbitzuari idazkia bidalita, posta arruntez (C/ Juan Ignacio Luca de Tena, 12 - 28027 Madril), posta elektronikoz (sac@asisa.es), fax bidez (91.595.75.50) edo ASISA-ren bulegoetan Bezeroen Arreta Zerbitzuari erreklamazioa bideratzeko inprimakia eskatuta.
3. Bezeroen Arreta Zerbitzuaren ebazpenarekin ados ez egotekotan, interesdunak erreklamazioa aurkeztu ahaliko du Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean.

8. Legeria aplikagarria.

Informazio ohar honetan adierazitako aseguru jarraian ageri diren legezko xedapenen arabera arautuko da:

- 50/80 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuei buruzkoa.
- 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, Erakunde Aseguratzailer eta Berraseguratzailer Antolaketa, Gainbegiraketa eta Kaudimenari buruzkoa.
- 1060/2015 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, Erakunde Aseguratzailer eta Berraseguratzailer Antolaketa, Gainbegiraketa eta Kaudimenari buruzkoa.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduaren eta datu horien zirkulazio askearen arloetako pertsona fisikoen babesari buruzkoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- ECO/734 Agindua, martxoaren 11koa, Finantza Erakunde Bezeroen Arreta Departamentu eta Zerbitzuei eta Bezeroen Defendatzaileei buruzkoa.
- Gorago adierazitako araudiei aplikagarriak zaizkien aurrerago onartutako garapen arauak eta aldaketak.

Espainiako Estatuari dagokio, Ekonomia Ministerioaren mendekoa den Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, jarduera aseguratzaileraren kontrola eta gainbegiraketa.

9. Zerga araubidea.

Kontratu honi aplikagarria zaion zerga araubidea izango da kasu bakoitzean indarrean dagoen legerian xedatutakoa, jarraian adierazitako zergei dagokienez:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
- Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga.
- Ondarearen gaineko Zerga.
- Sozietateen gaineko Zerga.